



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2006ko uztailaren 26a, asteartea.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena

**HASIERA-ORDUA:** 19:04    **AMAIERA-ORDUA:** 19:43

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Ramon Etxeberria Aldaz

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solabarrieta, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika, Eugenio Cotado Iturain, eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Asier Yeregi Campos, bertaratzea desenkusutzen du udalerritik kanpo dagoelako.



## Aztergai zerrenda

1. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko ekainaren 27ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko Udala eta Orioko Herri Ikastola Elkarte Kooperatiboaren artean sinatu beharreko lankidetza hitzarmenaren testua, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.
3. Onartzea, egoki bada, Orioko San Nikolas Kaleko 8. zenbakiko eraikinaren behe oinaren partaidetza zatiezinaren (% 74,88) salerosketa, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea dagokion eskritura publikoa sinatzeko.
4. Onartzea, egoki bada, jendaurreko enkantean Orioko H.J.E.3 –Hondartza–eremuaren Birzatatze Proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinaren (29,09356 %) salmentarako Baldintzak.
5. Onartzea, egoki bada, Udal honek eta “DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.” merkatal erakundeak sinatu beharreko hiri kudeaketarako hitzarmenaren testua, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.
6. Onartzea, egoki bada, elektrizitatea sortzeko eguzki plakak ezartzeko araudiaren Udal Ordenantza.
7. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Urola Kosta Mankomunitatearen artean sinatu beharreko lankidetza hitzarmenaren testua, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.
8. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikuste eta egokitze txostenaren 4. Eremuaren –Aita Lertxundi–hirigintza-fitxaren aldaketa.



9. Onartzea, egoki bada, 2007. urterako Orioko udalerriko jai eguna.
10. Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKAINAREN 27EKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, 2006ko ekainaren 27ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

### **2. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALA ETA ORIOKO HERRI IKASTOLA ELKARTE KOOPERATIBOAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENAREN TESTUA, ETA ALKATETZARI AHALMEN OSOA EMATEA ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA HITZARMENA SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Azkue (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO**



**BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren kontrako botoarekin, guztira **KONTRAKO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU**:

**ONARTZEA** Orioko Udala eta Orioko Herri Ikastola Elkarte Kooperatiboaren artean sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmenaren testua, eta Alkatetzari **AHALMEN** osoa ematea hitzarmena sinatzeko Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

Emandako botoen esplikazio txandan, Jesús Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak hartzen du hitza esateko kontuan hartuz hitzarmen bat sinatu behar dela, argi eta garbi beharrezkoa, ezin zaizkiola eman Ikastolari ematen ari zaizkion abantailak, izan ere oso eskuzabala baita, eta ohartarazten du hitzarmen hau udal lokalen anexio bat gehiago dela. Era berean, adierazten du Tokiko Erakundeak ez daudela enpresa pribatuen beharrak betetzeko, eta ondorioz, ez daudela konpetentzia egiteko diru publikoaz eskola publiko eta laiko bati.

**3. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO SAN NIKOLAS KALEKO 8. ZENBAKIKO ERAIKINAREN BEHE OINAREN PARTAIDETZA ZATIEZINAREN (% 74,88) SALEROSKETA, ETA ALKATETZARI AHALMEN OSOA EMATEA DAGOKION ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA** Orioko San Nikolas kaleko 8. zenbakiko eraikinaren behe oinaren partaidetza zatiezinaren (% 74,88) salerosketa, eta Alkatetzari **AHALMEN** osoa ematea dagokion eskritura publikoa sinatzeko.



Salerosketaren prezioa 128.044,80 eurokoa da.

**4. ONARTZEA, EGOKI BADA, JENDAURREKO ENKANTEAN ORIOKO H.I.E.3 –HONDARTZA– EREMUAREN BIRZATITZEKO PROIEKTUAREN 2B8 PARTZELAREN PARTAIDETZA ZATIEZINAREN (29,09356 %) SALMENTARAKO BALDINTZAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza eta Obren Batzorde Informatzaileak 2006ko uztailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, jendaurreko enkantean Orioko H.I.E.3 –Hondartza– eremuaren birzatatitzeko proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinarekin (29,09356 %) salmentarako Baldintzak.

Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:

**1.- Erakunde adjudikatzailea.**

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailatza.

**2.- Kontratuaren helburua.**

- a) Helburuaren azalpena: Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. Hirigintza-Jarduerarako Eremuko 2B8 partzelaren % 29,09356 zatiezineko kopurua Enkante Publikoan saltzea.

**3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.**



- a) Tramitazioa: Arrunta.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Enkante Publikoa.

**4.- Enkanterako oinarrizko prezioa.**

Udal jabetzako aipatutako partzelak saltzeko enkanterako oinarrizko prezioa 1.028.253,69 eurokoa da, eta ez du barne hartzen BEZik, ezta esleipendunaren kontura doazen notaritzako gastuak eta jabetzako erregistroko gastuak.

**5.- Bermeak.**

- a) Behin-behinekoa: 20.565 euro.
- b) Behin-betikoa: Esleipendunaren behin behineko bermea bahiturik egongo da salmenta prezioa ordaintzen duen arte.

**6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

**7.- Kontratatik bete behar dituen baldintza bereziak.**

Baldintza ekonomikoak eta administratiboak datozen orrietako 9. artikuluan adierazitakoak.

**8.- Eskaintzen gaineko datuak.**

- a) Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza ekonomikoak eta administratiboak datozen orrietako 11. artikuluan adierazitakoak.
- a) Zenbat denboran eutsi behar dion lehiatzaileak eskaintzari: 3 hilabete.

**9.- Agiriak eta argibideak jaso nahiz eskaintzak aurkezteko tokiak.**

Orioko Udala. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio



**10.- Epeak.**

- a) Agiriak eta argibideak jaso nahiz eskaintzak eta eskabide orriak aurkezteko epe muga: 20 egunekoa, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 8:30etatik 14:30tara.
- b) Eskaintzak irekitzeko eguna eta ordua: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hirugarren laneguneko 12:00etan. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

**5. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL HONEK ETA “DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.” MERKATAL ERAKUNDEAK SINATU BEHARREKO HIRI KUDEAKETARAKO HITZARMENAREN TESTUA, ETA ALKATETZARI AHALMEN OSOA EMATEA ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA HITZARMENA SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko uztailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZAZPI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Legarra (EA), Azkue (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien abstentzioarekin guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

**ONARTZEA** Udal honek eta “DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.” Merkatal Erakundeak sinatu beharreko hiri kudeaketarako hitzarmenaren testua, eta Alkatetzari **AHALMEN** osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.

Emandako botoen esplikazio txandan EAko zinegotziek abstentzioa justifikatzen duen idatzi bat aurkeztu dute, eta hitzez hitz honela dio:



*“Orioko Udaleko EAko zinegotzien taldeak, Orioko Udalak Construcciones Mendibil, S.L.rekin sinatu beharreko hitzarmenari dagokionez abstenitzea erabaki du, honako arrazoi hauek direla medio:*

1. *Hasierako epeak, Hondartza Planean adierazita zeudenak, 17 hilabete ziren hotelerako eta 19 hilabete etxebizitzetarako.*
2. *Hitzarmen horren bitartez epea 32 hilabetera zabaldu da, hau da, hotelaren epea 15 hilabetetan eta etxebizitzaren epea 13 hilabetetan zabaldu da.*
3. *Construcciones Mendibil enpresak proposatutako kontrapartida honako hau da:*
  - a. *Gaztelekuaren burutzapen materiala ..... 84.791,02*
  - b. *Eskudirutan ..... 162.237,27*
  - c. *Gaztelekua eraikitzeako proiektua eta obra-zuzendaritza, 12.000 eurotan kalkulatu da.*
4. *Konpentsazioaren guztizkoa 259.064,29 euro da, eta ez zaigu nahikoa iruditzen Orioko herria konpentsatzeko, Hondartza Plana bezalako lehiaketa garrantzitsu batean epe puntuagarrien ez-betetzea oso handia izan delako, oso denbora luzean Hondartzako zonak izan duen irudi txarra ahaztu gabe.”*

## **6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ELEKTRIZITATEA SORTZEKO EGUZKI PLAKAK EZARTZEKO ARAUDIAREN UDAL ORDENANTZA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko uztailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:





**LEHEN ONARPENA EMATEA** elektrizitatea sortzeko eguzki plakak ezartzeko araudiaren Udal Ordenantza.

Erregimen Lokaleko Oinarrien Arautzaile den Apirilaren 2ko 7/1985 legeko 49 artikuluan ezartzen dena betez, herria jakinaren gainean jartzen da interesatu orok 30 lanegunetan zehar, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bere erreklamazio eta oharrak egin ditzan Udalbatzarraren aurrean.

Adierazi Udal Ordenantza interesatuen eskuerara egongo da Udaletxeko Idazkaritzan lanegun guztietako lanorduen barne.

Aldi berean adierazten da akordio horri buruz adierazi epean zehar ez bada ez erreklamaziorik ez oharririk egiten behin betiko onartutzat joko dela adierazitako Udal Ordenantza.

**7. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA UROLA KOSTA MANKOMUNITATEAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENAREN TESTUA, ETA ALKATETZARI AHALMEN OSOA EMATEA ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA HITZARMENA SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko uztailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA** Orioko Udalaren eta Urola Kosta Mankomunitatearen artean sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren testua, eta Alkatetzari **AHALMEN** osoa ematea Orioko udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.



## **8. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE ETA EGOKITZE TXOSTENAREN 4. EREMUAREN –AITA LERTXUNDI–HIRIGINTZA-FITXAREN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko uztailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZAZPI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Legarra (EA), Azkue (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien abstentzioarekin guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuste eta Egokitze txostenaren 4. Eremuaren –Aita Lertxundi– hirigintza-fitxaren aldaketari, Orioko Udalak sustatu eta Iñaki Echeverria Eizaguirre Arkitekto jaunak eta Jose M<sup>a</sup> Abad Urruzola Abokatu jaunak idatzia.

**2.-** Espediente hori jendaurrean agertzea hilabete bateko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo Gipuzkoako hedapen handiko egunkarietako batean azkenik argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita

Epe horren barruan nahi duenaren eskura txostena aztergai egongo da Udaleko Bulego Teknikoan, astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30era, interesatuek Udalbatzarraren aurrean egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Emandako botoen esplikazio txandan EAko zinegotziek abstentzioa justifikatzen duen idatzi bat aurkeztu dute, eta hitzez hitz honela dio:



*“Orioko Udaleko EAko zinegotzien taldeak, Aita Lertxundi arearen aldaketa-proposamenari dagokionez abstenitzea erabaki du, honako arrazoi hauek direla medio:*

*1. UAU 4.1eko eraikuntza-proiektua bideragarri egiteko eta Muebles Esnal-en lur-zatian garaje-eraikuntzari irtenbide bat emateko zailtasunaz jabetuz, Orioko Arau Subsidiarioen berrikuspenaren behin-behineko onuspenaren fitxan agertzen zen bolumena handitzea onartu genuen.*

*2. EA Talde Politikoak, Orioko Plangintza Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren alegazioaldian, alegazio bat aurkeztu zuen, area bakoitzeko bizitegi-lurzoruko guztizko m2ak oro har 90 m2-ko parametroarekin zatitzea proposatuz, eta alegazio hori onartu egin zen.*

*3. Area honetan, trataera desberdina eman zaie UAU 4.1.-eri eta UAU 4.2.-ari, lehenengo pastillan 80 m2-ko parametroa eta bigarrenean 90 m2-koa erabiliz.*

*Ondorio bezala, adierazi nahi dugu ez zaigula onargarria iruditzen, alde batetik, UAU 4.1.-ean 90 m2-ko parametro hori ez erabiltzea, eta bestetik, UAU 4.2.-an egiten den tratamendu desberdina, beste pastillakoaren bestelako parametro bat aplikatuz.”*

Alkate jaunak hartzen du hitza adierazteko H.J.U. 4.1. eremuko aprobeixamenduak 80m<sup>2</sup>-tan banatzea, ondorioz 3 etxebizitza gehiago lortuz, eremu horrek hiri karga handiak dituelako dela, eta proposatutako ordenamendu berriarekin asko hobetuko dela, baina beti bolumen bera mantentzen dela. Hiri operazio hau berdin planteatzen da frontoiaren eremuan, hau ere hiri karga handiak dituen eremua.

Jesús Rodríguez zinegotziak hartzen du hitza esateko ez zaiola arrazoirik falta EA talde politikoak defenditzen duen posturari, baina zerbait egokia egitekotan direla eta hobekuntzak nabariak izango direla.



## **9. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007. URTERAKO ORIOKO UDALERRIKO JAI EGUNA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**PROPOSATZEA** Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko udalerriko herriko jaia, egun baliogabea lanegunari dagokionez, ordaindua eta ez errekuperatzekoa, 2007. urtean ekainaren 29a izatea, San Pedro Eguna.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren uztailaren 18ko 154/2006 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2007. urterako Euskal Autonomia Erkidegoan Jai Egunen Egutegi Ofiziala onartzen duena.

## **10. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Eguneko Aztergai Zerrendatik kanpo eta Udalbatzarrak urgentziazkoa deklaratu ondoren, ondorengo puntuan aipatzen den **AKORDIO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

## **11. ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATETZAREN PROPOSAMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITUREN FORU DIPUTATUARI IDATZI BAT IGORTZEKO ORIO ETA USURBIL ARTEKO ZATIAN HIRUGARREN KARRILA EGITEKO OBREN EXEKUZIOA DELA ETA.**



Azkenik, eta Alkatetzak proposaturik, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**IGORTZEA** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Diputatuari idatzi bat Orio eta Usurbil arteko zatian hirugarren karrila egiteko obren exekuzioa dela eta, eta hitzez hitz honela dio:

*“Jaun hori,*

*Idatzi honen bidez Orioko Udalbatzarrak 2006ko uztailaren 26an ospatutako ohiko bilkuran aho batez adostutako eskariaren berri ematera natorkizu.*

*Jakin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Departamentua hasita dagoela A-8 autopistako Orio eta Zarautz arteko zatian hirugarren karrila egiteko proiektua idazten.*

*Hori dela eta, egokia iruditu zaigu zuregana jotzea, aspaldian buruan dauzkagun bi aktuazio proposatzeko:*

- a) Oinezkoentzako pasabidea egitea autopistaren gainean, San Martin ermitaren inguruan, Donejakue Bideko ibilbide zaharra berreskuratuz, A-8 autopistaren eraikuntzak zatitu zuena.*
- b) Oinezkoentzako pasabidea egitea autopista ondoan, Orio ibaiaren bi ertzak lotuz, zubiaren itxura hobetzeko eta paseatzeko ibilbide berriak sortzeko.*

### **SAN MARTIN PASABIDEA**

*Euskal Herriko erakunde guztiak (Jaurlaritza, Aldundiak zein Udalak) ahaleginak egiten ari dira Kostaldeko Donejakue Bidea sustatzeko. Gure zatiari dagokionez, Orioko Udalbatzarrak 2004an onartu zuen Kostaldeko Donejakue Bidearen Orioko ibilbidea, eta dagoeneko bide seinaleak jarrita daude: Eusko Jaurlaritzak jarri ditu ibilbidekoak eta Orioko Udalak herri barrukoak.*

*Ahalegin handia egiten ari gara guztiok bide hori berreskuratu, hobetu eta sustatzeko, garrantzi historiko, kultural eta turistiko izugarrikoa baita. Orioko kasuan, gainera, esan dezakegu Donejakue Bideak garrantzi berezia hartzen duela, herri gune historikotik barrena pasatzen baita eta herri gune historiko*



*hori, Orioko San Martin ermita bezala, Donejakue Bideari atxikitako monumentutzat hartua baita.*

*Eskatzen duguna hobeto ulertzeko, jakin behar duzu Donejakue Bideak Orion gaur egun egiten duen ibilbidea ez dela lehengoa eta gure asmoa ibilbide zaharra berreskuratzea dela, aukera emateko erromesei autopista gainetik pasatzeko itzulbide luze-alperrekorik egin gabe.*

*Hobeto ikusiko duzu hori dena erantsita bidaltzen dizuegun irudian: ibilbidea, seinalizazio puntuak, oinezkoen pasabidea ('San Martin pasabidea' izena izango lukeena)...*

*Eusko Jaurlaritzan badute gure asmo honen berri, zeren eta, Kultura Sailarekin Donejakue Bidearen Orioko zatiaren ibilbidea adostu genuenean, honetaz ere aritu baikinen eta Kultura Sailekoek aipatu zuten gai honi buruzko alegazio bat aurkez zezaketela A-8 autopistako Orio eta Zarautz arteko hirugarren karrilaren eraikuntza planteatzen zenean.*

### **AUTOPISTA ONDOKO PASABIDEA**

*Autopista ondoko pasabidea egiteko proposamena, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundian sortu zen, Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuan, Jose M. Alkorta Azkue eta Carmen Alkorta Azkue arkitektoek 2002ko azaroan idatzitako proiektu baten barruan (Proyecto sobre el Trazado de Camino Principal para la Planificación de una Estructura Territorial Igeldo-Itziar)*

*A-8 autopistako Orio eta Zarautz arteko zatian hirugarren karrila egiteko proiektua aukera ezin hobea da bi hobekuntza garrantzitsu horiek gauzatzeko eta gaia bideratzea da eskatzen dizuguna. Aukera hau behar bezala aprobetxatzen jakingo dugulakoan, jaso ezazu gure agurrik beroena.”*

Horrenbestez, eta publikoan zeuden zenbaitzuk hitza hartu ondoren, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**